



## **Denboraldiko fruta freskoa baztertutako material birziklagarrien truke.**

*TECMANeko langile beraietik sortutako ekimen bat da, hau da, lanean egiten dituzten obretatik baztertzen dituzten materialak birziklatzeagatik jasotzen duten diruari esker egindako botearekin, fruta freskoa kontsumitzen dute bazkarian edo otordu artean.*

*Fruta-denda batekin duten akordioari esker, denboraldiko fruta freskoa jasotzen dute, asteen bi aldiz hornitzen dituzte.*

Loreley Gorostiza TECMANeko langileetako bat da eta bizimodu osasungarriaren ohiturekin konprometita dago. Horrela izanik, duela aste batzuk, euskal enpresako langileri guztiaren artean berehala zabaldu zen ideia bat proposatu zuen bere sailean. Langileen bazkarian fruta sartzea, horrela lankideen artean ohitura osasuntsuak sustatuko lirateke.

Honaino, dena normal, harridura sortu zuena zera izan zen, ideia finkatzen ari zen heinean, urrunago doan ekimena garatzen joan ziren. Azken ideia honek TECMANeko profesionalen artean bizimodu osasungarriaren ohiturak sustatzeaz gain ingurugiroari ere laguntzen dio, zeren eta berehala mahaigaineratu zioten enpresako zuzendaritzari ingurumen kudeatzaile batengana bidaltzen duten eta baztertutako materialaren truke jasotzen duten diruarekin finantzatu ahal izatea egunero jango duten fruta. TECMANek instalazio industrial handitan lan egiten du eta birziklatzea bidali behar den burdina bezalako material mota kopuru handietan egiten da.

Proposamena berehala gauzatu zan eta emaitza frutaren etengabeko presentzian itzultzen da, langile guztiek jaten dutena ekimenari esker. Tokiko fruta-denda bat arduratzen da asteen bi aldiz denboraldiko fruta freskoz hornitzen, egunero bazkari garaian eta otordu artean jaten dutena.

Enpresako saila desberdinetan ipintzen dira kaxak eta hauetan mota desberdinetako fruta, monotonian ez erortzeko. Bakoitzak nahi duena hartzen du, beti eskura dutelako. Ekintza osasungarria eta jasangarria zalantzarik gabe, lankideetatik abiatu dena.



Zalantzak argitzeko edo informazio zehatzagoa nahi izan ezker, [prensa@comunicamelo.es](mailto:prensa@comunicamelo.es) helbidera idatzi edo 609491422 (Martín) zenbakira deitu.